



**EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN KONPETENTZIAK
EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO
PROZEDURAKO HAUTAGAIAREN
GIDA**



1.- PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

Konpetentziak Ebaluatu eta Egiaztatzeko Prozedurara aurkezten direnek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea, Europako Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerritartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.
- b) Izena ematerakoan 18 urte beteta izatea, 1. mailako kualifikazioei dagozkien konpetentzia-atalen kasuan, eta 20 urte 2. eta 3. mailakoen kasuan.
- c) Justifikatu lan-esperientzia eta / edo prestakuntza ez-formalak, egiaztatzeko behar diren konpetentzia-ataletarako, deialdia egin aurreko azken 10 urteetan:
 - Lan-esperientiaren kasuan. Gutxienez 3 urte justifikatzea, gutxienez 2.000 ordu lan eginda guztira 2. eta 3. mailako konpetentzia-ataletarako eta 1. maila konpetentzia-ataletarako 2 urte behar dira laneko esperientzia, gutxienez 1.200 ordu lan eginda guztira.
 - Prestakuntza ez-formalaren kasuan. Konpetentzia-atal bakoitzeko eskakizun orduak I. eranskinean adierazitakoak dira, prestakuntza ez formalen gutxienerako 300 ordu baino gehiagoko justifikazioa 2 eta 3 mailari dagozkionean, kasu horretan, gutxienez 300 ordu izango dira eta 200 ordu baino gehiagoko 1. mailari dagozkionean, gutxienez 200 ordu izango dira.

2. - IZENA EMATEKO ORIENTABIDEAK

Prozeduran Aurrez Izena Ematea

Deialdia argitaratu ondoren, interesdunek aukera izango dute, ezarritako epeetan, konpetentziak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduran aurrez izena emateko.

Aurrez izena emateko jarraibideak hauek dira:

1. Aurrez izena emateko eskabidea betetzea.
2. Deialdian ezarritako eskakizunak betetzearen egiaztagiriak (originalak eta fotokopiak) eranstea:
 - Eskatzen den konpetentzia-atalekin lotutako postu batean lan egiten dela adieraziko duen enpresa-ziurtagiria (eredua www.ivac-eei.eus webgunean izango da deialdiarekin batera).
 - Gizarte Segurantzako Lan Bizitzaren laburpena.



3. Aurreko dokumentuak aurkeztea deialdian agertzen diren baimendutako zentroetako batean.
4. Tasak ordaintzea edo ordainketaren salbuespena justifikatzen Tasen ordainketa edo salbuespena justifikatzen ez badira, prozeduran parte hartzearen erretiratzea ekarriko du.

Eskabideak aurkezteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen den deialdian zehazten da. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak baztertuta geratuko dira.

Eskakizunak betetzen dituzten eskabideen kopuruak onar daitezkeen gehieneko hautagai kopurua gainditzen badu, lortutako puntuazioa baremo honen arabera adieraziko dela:

- Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonak.
- Azken 10 urteetan lanbide-prestakuntzaren esparru berariazkoan lan-eskarmentu handiagoa lortu izana egiaztatzea, lan egin den enpres(ar)en ziurtagiri bat eta lan-bizitzaren laburpen bat aurkeztuta. Puntu 1 emango da lan egindako egun bakoitzeko.
- Enplegu eskatzaile gisa izena emateko data, zaharretik berrienera.
- Gorabeheren bat izanez gero, aurreinskripzio eskabidea egiteko aurkezten den unearen arabera zehaztuko da lehentasuna.

10 egun balioduneko epea dago, aurreinskripzioaren hurrengo egunetik hasita, baztertzea eragin duen akatsa edo omisioa zuzentzeko aurkeztu diren dokumentazioan.

Aurreinskripzio epealdia amaitu ondoren, **onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendak** argitaratuko dira, eta 5 eguneko (baliodunak) epea egongo da, Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarkien taulan iragarkia txertatzen denetik, erreklamazioak egiteko, egokitzen joz gero. Epe hori igaro ondoren, ez zaie erreklamazioei erantzungo.

Behin erreklamazioak ebatzi ondoren, prozeduran onartutako lagunen **behin betiko zerrendak** argitaratuko dira, eta horiek aholkularitza-faserako izena emango dute. Desadostasunak iraungo balu, Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da, egokitzen joz gero.

Aholkularitzarako izena Ematea

Prozedurarako onartua izanez gero, aholkularitza-faserako izena eman behar da deialdian baimendutako zentro batean. Ondoren, tasak ordaindu edo ordainketaren salbuespena justifikatu behar da dagokion epean.

Datak edo epea betetzen ez badira, prozeduran parte hartzearen erretiratzea ekarriko du.



Ebaluaziorako Izena Ematea

Aholkularitza fasea bukatu ondoren, ebaluaketarako izena ematea burutu behar duzu; izen emate honetan, ebaluatua izan nahi duzun Konpetentzi Atalak zehaztu behar dituzu. Aholkularitzako fasean jasotako **Ebaluaziorako Izena emateko Gomendioak** har ditzakezu erreferentzizat.

Ondoren, tasak ordaindu edo ordainketaren salbuespena justifikatu behar da dagokion epean.

Datak edo epea betetzen ez badira, prozeduran parte hartzearen erretiratzea ekarriko du.

3. - PROZEDURAREN FASEAK

Konpetentziak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduraren faseak:

1. - Aholkularitza.
2. - Konpetentzia profesionalaren ebaluaketa.
3. - Konpetentzia profesionalaren egiaztapena eta erregistroa.

Lehen fasea: AHOLKULARITZA

Fase honek bete beharreko izaera du. Aholkulariak lagunduko du dagokion lan-erperientziaren eta/edo prestakuntzaren bitartez eskuratutako konpetentzia profesionalak identifikatzen eta Ebaluazio Batzordeari aurkezten.

Aholkulariak hezkuntzako edo prestakuntzako profesionalak edota egiaztapenaren xede den konpetentzia-ataletan adituak dira, prozeduran prestatutakoak eta ofizialki gaitutakoak euren lana egiteko.

Fase honetan, zeregin hauetan lagunduko dute:

- Prozeduraren faseak eta garapena ezagutzen.
- Auto-ebaluazioko galdera-sorta egiten.
- Izena emandako konpetentzia-atalekin lotuta, dagokion Titulu edo Profesionaltasun Ziurtagiriaren konpetentziaren ebidentzia guztiak biltzen.
- Lanbide eta Prestakuntza Historia betetzen.
- Konpetentzien Txostena prestatzen.

Aholkularitza LEHEN TALDE BILERAREKIN hasten da. Aholkulariak hitzordua emango du izena eman duten pertsonen lehen bilera horretarako. Telefono mugikorraren, posta elektronikoren edo ohiko postaren adi egon behar da, hitzordua baliabide horien bitartez iritsiko baita.

Ondoren, aholkulariak hitzordua emango du AHOLKULARITZAKO BANAKO BILER(ET)ARAKO -hori(ek) ere nahitaezkoak d(ir)a-. Bilera horretan/horietan,



Elkarrizketa Profesionala egingo da aholkatzeko helburuarekin, non dokumentazio gehigarria ere ekar daitekeen.

Azken aholkularitza-bileran, kompetentzia-atal bakoitzean egiaztatzeko aukeren berri emango da, eta **Ebaluaziorako Izena emateko Gomendioak** entregatuko dira.

Prestakuntza-ekintza batzuk gomendatuko dira eta **I. Prestakuntza-plana** entregatuko da.

Bakoitzak askatasunez erabakitzen du ebaluazio-fasera pasatu ala ez eta zein kompetentzia- ataletan parte hartzen duen.

Bigarren fasea: KONPETENTZIA PROFESIONALA EBALUATZEA

Ebaluazio-fasean, hautagaien kompetentzia profesionala egiaztatzen da, Konpetentzien Txostenean eta Aholkulariaren Txostenean jasotako ebidentziak kontuan izanda.

Ebaluazioa egiteko, aholkulariaren Txostena eta hautagaiak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuko dira eta, hala badagokio, izena eman deneko kompetentzia-ataletan eskatutako kompetentzia profesionalak ebaluatzeko beharrezkoak diren ebidentzia gehiago bilduko dira.

Konpetentzien Txostena eta Aholkulariaren Txostena aztertu ondoren, Ebaluazio Batzordeak hautagaiari hartutako erabakiak helaraziko dizkio, zeharkako ebidentzien **Balioespen-irizpenaren** bitartez.

Balioespen-irizpen hori txosten bat da. Txosten horretan adierazten da bai probarik gabe **aintzatetsitakoa**, bai oraindik **aintzatetsi ez dena**. Aintzatetsi ez denerako ebidentzia osagarriak Banakako ebaluazio-planaren bidez biltzen dira, zeinak **Konpetentzia Probak** egiteko lekua, data eta ordua adierazten duen.

Behin **Konpetentzia Probak** amaituta, Konpetentzia-atal guztietan konpetentziarik egiaztatu ez bada, Ebaluazio Batzordeak **II. Prestakuntza-plana** igorriko du.

Hirugarren fasea: KONPETENTZIA PROFESIONALA EGIAZTATU ETA ERREGISTRATZEA

Ebaluazio-fasea gainditu ondoren, Lanbide Heziketako Sailburuordeak dagokion konpetentzia profesionala egiaztatu deneko konpetentzia-atal bakoitzaren egiaztapena igorriko du Lanbide Heziketako edozein zentroan.



4. - EGIAZTAPENAREN ONDORIOAK

Konpetentzia profesionalak Ebaluatu eta Egiaztatzeko Prozeduraren bidez lortutako konpetentzia-atalen egiaztapenak egiaztatze partzial metagarriaren ondorioak ditu. Horren helburua da, hala badagokio, bidezko **Lanbide Heziketako Titulua edo Profesionaltasun Ziurtagiria** lortzera bideratutako prestakuntza osatzea.

Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzearen ondorioek Estatuko lurralde osoan dute hedadura eta baliozkotasuna.

5. - PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

PARTE -HARTZAILEEN ESKUBIDEAK

- Prozeduran sartzeko aukera-berdintasuna.
- Prozeduran nor bere borondatez sartuko da, eta ebaluazioaren emaitzak konfidentzialak izango dira.
- Aukera izango da aurkeztutako dokumentazioaren baremazioaren gainean erreklamazioa jartzeko Hautaketa Batzordearen aurrean.
- Parte-hartzaileek, aholkularitza-fasea amaitu ondoren, hautatu dituzten konpetentzia-ataletan ebaluazio-fasera pasatzeko erabakia har dezakete.
- Ebaluatutako parte-hartzaileek ebaluazioaren emaitzen berri izango dute, eta eskubidea izango dute Ebaluazio Batzordearen aurrean erreklamatzeko eta, hala badagokio, administrazio eskudunaren aurrean gora jotzeko errekurtsua aurkezteko.
- Prozeduran zehar egiaztatutako konpetentzia-ataleki dagokien ziurtagiria jaso ahal izango dute.
- Prozedura bideratzean tratatzen den edozein datu pertsonalari dagokionez, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa beteko da.

PARTE -HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

- Prozeduran aurrez izena ematea ezarritako epeetan.
- Prozeduran eskatutako dokumentazioa ematea.
- Prozedura errazteko aholkulari eta ebaluatzaileen jarraibideak betetzea.